

CREOLE PETROLEUM CORPORATION

APARTADO 889

CARACAS

VENEZUELA

Caracas'en
1965'go urrillak 7

Lafitte'tar Pierre jauna
Petit Seminaire
Ustaritz, BP

Aberkide zintzo ta langille ori, agur:

Unamuno ta euskera gai dituala ari naiz liburubxo bat idazten, eta dokumentazio billa, ara jo ta onera otsein, Viena'ko Mukarovsky jakintzuarena joana naiz. Baita laguntz ona beragandik artu ere. Beraxe eman dit zure izena ta zuzenbidea. Ez nik, gero, zure entzuerik ez nualako; makifa bat aldiz irakurri det zure izen ospetsua; baian orrelako eskabide bat egiteko ez zitzaidan burura etorri.


Ara nere lana:

Unamuno'ren "La cuestión del vascuence" k kalte aundia egin zigula ta egiten ari zaigula oraindik iruditzen zait. Euskotar askok Unamuno jaungoikotzaz dauke, ta berak euskeratzaz esan zituanak ontzaz artzen dituzte. Batez ere gure jende ikasietan, unibersidadetako ikasleetan. Orreri jo nai nioke. Nere ustez gure izkuntzak ez dauka barrengo gaitzik, eta bera landu ta aberastearekin ez diogu munduko jakintzari kalterik egiten, berak zion bezela, on aundi-aundia baizik.

Nere bearra: gai oietan nagusi diren iritxiak jaso ta eman nai nituzke. Orretarako zerorren iritxia emango al zirazuke, ta lan onetarako gai on dan libururik izentatuko al zidazuke?

Beste izen bat eman nau Mukarovsky'k: Haritschelhar, Baiona'koa, ta zure lagun-laguna, noski. Orain bertan idatziko diot berari ere.

Aztiirik ba dezu, idatzi akidazu, mesedez, eta eskerrikasko. Nai dezunerako agindu,



Ugalde'tar Martin
Difector de El Farol
Creole-Apartado 889
Caracas

A 1/21

Ondarribian,
1970-go ekainak 15

Pierre Lafitte Ithurralde, apaiz jauna
Baionan

Aberkide jakintsu eta langille hori:

Ei tokietara dijoakizu eskutitz hau; zure zuzenbiderik ez dut, eta Herria aldizkariarenik ere ez. Nola nahi, elduko ahal zaizu. Nik hori espero, eta behar.

Ba dakizu Zeruko Argiarako iritzi batzuk jasotzen ari naizela; gaia: batasuna, ta batez ere (orain beintzat) h hau. Zuregana joan nahi nuan, baiñan aztirik ez dut oraintxe, eta nik lenbait len bukatu nahi eta idatziz eskatu nahi dizut zure iritzia. Il onen azkenean kanpora joan beharra dut, eta Zeruko Argian utzi nahi nuke zure hau; argazkitxo bat ere bialduko ahal di razu, arren.

1) Orain arte urten diranak elkar-izketan irakurriko zifuzen; zer derizkio zu euskeraren batasunatzaz darabilkizkigun nahaspilla hoietaz.

2) Nolabaiteko legeak-edo behar ditugu euskeran ere; Arantzazun artutako "errekomentazio" hura ("ondo ikusiko lukela"...)) ondo iruditzen ahal zaizu, edo ez dugu egindako lan artatik ondorenik atera beharrik.

3) Esaten dutenez, zuk bein esan omen zenduan: mugaz aukero euskera gutxi dala eta gutxitzen ari dala; ez diogula batasunerako zueñ honeri kasorik egin behar; ala ere mugaz onerako gazteak h hau artu nahi dute, anaitasuna erakusteko: zer diozu zuk auzi honetaz?

4) Orko gazteak nola ikusten dute batasunaren auzia?

5) Mitxelena eskeñi zuan Arantzazun bere batasunaren bide bat; uste ahal duzu beste aukera oberik ba dugula, eta Euskaltzaindiak billatu behar lukela.

6) Idazle gazteak bere kontura ari dira auzi guzi honen prolemak bere gisa aztertzen eta zuzentzen; indar hau ondo ahal derizkiozu, edo kalteak ere ikusten dizkiozu Euskaltzainditik kanpora egindako lan hoiei?

7) Zure esku baleo, eta erreztasunak orretarako ugari, behar aña, baziñu, nola egingo zituzuke batasunerako egin behar diran lanak?

Zu zera mugaz aukeroen ordeko bezela izketan jarriko zaitutena Zeruko Argia-ko elkar-izketa hoietan. Ahal duzun zabalari eta orko euskeldunen izenean iruditzen zaizuna esaten saia zaita, arren.

Zure itzen zai geratzen naiz. Nahi duzunerako agindu, eta besarkada estu bat

Martin Ugalde
Martin Ugalde
Calle Almirante Juan Alonso
Villa Carolina A. 42, dcha.
Fuenterrabia, Guipuzcoa

*Letra hau hatereman dut, idetua,
Herria-ren burlegoan. Ez dela galtzeret urtekoa
idurituak, hel-arazten daitezut zuharr. Soaizte: Llane*

Ondarrabian,
1979go uztailak 9

Aita Pierre Lafitte
11 rue Jacques Lafitte
Bayonne

Aita Lafitte agurgarria:

Hemen natorkizu laguntza eske.

Uste dut nere Euskal Kondairaren Sintesia ezagutzen duzula. Orain, honi Errepublika garaia eta guda erantsi behar diot, eta atzerrian egindakoaren berri txo bat edo beste ere eman beharko.

Honekin esan nahi dut, egindako Sintesia berritzeko eta hobetzeko egokiera izango dutala.

Eta hemen nere eskaera: Sintesia-n aurkitu zituzun hutsak, zure oharrak, pozik hartuko nituzke, batez ere Ipar-Euskadi-ri dagokioztenak.

Garai hartan ez nuen ezer haundirik aurkitu, laburra zenik behintzat, nere lan arin hau, sintesi hau, osatzeko.

Dakizunez, nire lana, ikerketa lana baino zabalkunde lana gehiago da; batez ere, hauxe da. Gainera, eta beharraren eraginez, lanak nahiko arin-azkar egin behar izaten ditut.

Hau dena dela-ta, eskertuko nizuke anitz zure oharrak bi puntutan egingo bazizkidazuke: 1) egindakoaz oharrak egin, zuzentzeko, berri-tzeko, gehitzeko, eta 2) zati berriak erasteko iturririk onenak eta errazenenak.

Euskadiko Historia hau erraz irakurtzeko erraz den zerbaite eskatu di-date; jendeak historiari beldur piska bat baitio.

Ez da Estatu Espainolerako bakarrik; baita, eta batez, Ameriketara zabaltzeko.

Zure ohar guztiak eskertuko dizkizut.

Ondo izan eta mila esker bero,

Marti

Martin Ugalde